BERMEOKO EUT-KO DEKANTAZIO- ETA IRAGAZPEN-PROZESUAK ERABERRITZEKO OBRA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTEA: 3226

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐BAI ☒EZ
Espedientea izapidetzea	☒Ohikoa, ☐Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Xabier Bikandi Markaida
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Bermeoko EUTko dekantazio- eta iragazpen-prozesuak eraberritzeko obra

2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Kontratu honen xedea Bermeoko EUTko edateko uretarako dekantagailua eraberritzea da, zeinak jada bizitza baliagarriaren amaieran dauden dekantazio- eta erregulazio-elementuak baititu (instalazioaren tratamendu-gaitasuna murrizten du horrek). Lamelak berritzea da jomuga, zehazki, dauden guztiak kentzea eta horien ordez fabrikazio berrikoak ipintzea, dekantagailuan existitzen den sistema bera mantenduz eta EUTaren premiaren araberako sistema bat bermatuz betiere. Era berean, iragazteko prozesuaren kanalizazioak ere oso hondatuta daudenez gero, lau harea-iragazkien sarrera-, irteera- eta garbiketa-balbulak ordezteko ere aprobetxatuko da.

3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Loteka ez banatzearen justifikazioa: Kontuan hartuta obraren plangintzak EUTaren ustiapenean eta eragingarritasunean eragin oso nabarmena dakarrela, ez da egokitzat jotzen kontratua sortatan bereiztea.

4.- CPV:

CPV kodea:39370000-6

Deskribapena: Uraren tratamendurako instalazioak

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna:

☐ BAI

☒ EZ

B.- KONTRATUAREN XEDEA
6.- Izaera juridikoa ☒Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	BOSTEHUN ETA ZORTZI MILA BERREUN ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMO (508.278,28 €)
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: BOSTEHUN ETA ZORTZI MILA BERREUN ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMO (508.278,28 €) Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Prezio unitarioak	
4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 2026. urtea: 62302.169.32 partida 308.278,28 € 2027. urtea: 62302.169.32 partida 200.000,00 €	
5.- Prezioen berrikuspena: ☒ BAI ☐ EZ Aplikatu beharreko formula: 561 – SIDERURGIAKO METALEN, ZEMENTUAREN ETA ARROKA ETA AGREGAKINEN EDUKI HANDIA. Tipologia adierazgarrienak: Hornidurarako eta saneamendurako instalazioak eta eroanbideak. Kt = 0,10Ct /C0 + 0,05Et /E0 + 0,02Pt /P0 + 0,08Rt /R0 + 0,28St /S0 + 0,01Tt /T0 + 0,46	
6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin: ☐ BAI ☒EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiriak	
8.- Konturako ordainketak: Ez dagokio	

D.- KONTRATUAREN EPEA
1.- Iraupen osoa: HAMABI (12) HILABETE
2.- Epe partzialak. ☒ BAI ☐ EZ PTPAn zehaztutakoak.
3.- Luzapena ☐ BAI ☒ EZ

D.- KONTRATUAREN EPEA
4.- Bermealdia: URTEBETE (1)
5.- Kontratua exekutatzeko tokia: BBUPen instalazioak
6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK		
☒Behin betiko bermea:	% 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:		Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
EZ DA APLIKAGARRIA

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA
EZ DA APLIKAGARRIA

ENPRESA-SAILKAPENA
ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai ☐ Ez Eskatu beharreko taldea, azpitaldea eta kategoria: K taldea; 8 azpitaldea; 3 kategoria

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK
1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.
3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzaileek kontratua exekutatzeko proposamen teknikoa aurkeztu beharko dute, barne hartuta jarraian adierazitako puntu guztiak, eta, ahal dela, adierazitako hurrenkeran.

1. Egin beharreko lanen irismena.
   - Egin beharreko lanen deskribapena, proiektuan bildutako deskribapenari balio erantsia ekartzen diona, bai eta lanok gauzatzeko moduarena ere (usatu beharreko eraikuntza-sistemak)
2. Egin beharreko lanetarako proposatutako programazioa.
   - Fase bakoitzerako egin beharreko lanen denbora-banaketa, lehenagoko eta geroagoko jardueren, giza baliabideen, baliabide materialen, interferentzien, eragindako zerbitzuen eta abarren xehetasunekin.
   - Ezarri beharreko ekipamendu mekanikoen hornikuntza, muntaketa, probak eta harrera planifikatzea.
3. Kontrol-sistemak.
   - Kontratu honetarako aurreikusitako laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumeneko kontrol-sistemak.
   - Kontratu honetarako aurreikusitako kalitateko kontrol-sistema.
4. Kontratua exekutatzeko proposatutako antolamendu-egitura (organigrama) eta lantaldea.
   - Langileen organigrama eta zerrenda, kontratistaren ordezkaritik hasita beheraka.
   - Aurreko ataleko pertsonen CVa, prestakuntza eta lanbide-esperientzia jasota (gehieneko luzera: alde bat pertsonako).
5. Presentzia eta prestasuna, kontratua betetzeko. Atal honetan jaso behar dira kontratu honetarako proposatutako prestasuna, presentzia (ordutegia) eta ez-presentzia (erabilgarritasuna) salbuespenezko premiak, larrialdiak daudenean.
6. Lanak egiteko esleitutako bitarteko materialak
   - Instalazioen deskribapena (aldagelak, tailerrak eta bulegoak)
   - NBEak eta babes kolektiboko ekipoak.
   - Bitarteko osagarriak: aldamioak, garabiak, plataformak, ekipo elektrogenoak, eta abar. Propioak edo azpikontratatuak (azpikontratatzea aurreikusita badago, enpresa hornitzaileekiko konpromisoa erantsi behar da).
   - Hornitzaileekiko konpromisoak: azpikontratazioaren kasuan, hornitzaileekin sinatutako konpromisoa gehitu.
7. Erabili beharreko materialak
   - Eskainitako tresnak eta materialak ezaugarri nagusiekin eta merkataritza-erreferentzia osoekin lotzea. Aukera bat baino gehiago emateak, deskribapen generikoak egiteak eta «antzekoa» edo halako adierazpenak erabiltzeak ez dute balio izango. Eskainitako materialak lotesleak izango dira, eta ezin izango dira ordeztu eskaintza adjudikatu ostean, BBUPen Zuzendaritza Fakultatiboak idatzizko baimena eman ezean.
   - Erabiliko diren materialen kalitate-ziurtagiriak (CE marka, saiakuntzak, etab.).
   - Ekipo mekanikoen kasuan, gomendatutako ordezko piezen zerrenda baloratu bat aurkeztu beharko da, baita hornitzaileekin sinatutako konpromisoa ere.

Egindako plangintza islatzen duen Gantt-en diagrama bat jaso beharko dute, baliabideen esleipena, bide kritikoa eta funtsezko zereginak adierazita.

PTPAn 1.etik 4.era arteko mugarri gisa ezarritako geldialdiak nola egingo diren xehe-xehe zehaztu beharko da. Baimendutakoa baino handiagokoa den denbora orok, zeina kontratuaren arduradunak geldialdiaren aurretik jakinaraziko duen, zehapena ekarriko dio kontratistari. Sistemaren geldialdia ahalik eta txikiena izan dadin, 24 orduko lanaldiak eskatu ahalko dira exekuzioaren une kritikoetan. Aurkeztutako Gantt-en diagrama azaltzen duen testu-dokumentu bat erantsiko da.

Lizitatzaile bakoitzak berariaz adierazi beharko du zer neurri hartuko dituen obra gauzatzean, obraren eragina minimizatzeko. Hori guztia kostu gehigarririk gabe. Nolanahi ere, zehaztu beharra dago, proposamen orokor eta behar bezala aztertu gabeak eman gabe. Aurreikusten diren ekipo eta instalazioak, ezaugarriak eta jatorria zehaztuta. Enpresa hornitzaileen konpromiso-gutuna beharko da.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
Proposamen ekonomikoa, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskainitako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik. Kontratatutako proiektuan zehaztutako prezio unitarioak ezingo dira baja bereiziaren eraginpean egon; beraz, obraren irismena definitzen duen proiektuan barne hartutako lizitazio-prezio unitario bakoitzari beherapen globalaren ehunekoa aplikatuz lortutakoak izango dira kontratuaren garapenean kontuan hartu beharreko esleipen-prezio unitarioak. Prezio bakoitzak neurketa bat du esleituta, eta lizitatzaileek ezin izango dute aldatu. Segurtasun- eta osasun-azterketarako partida bat sartu da, eta ezin izango da txikiagoa izan.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA
1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik): 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea: https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA
☒Kontratazio-mahaia Lehendakaria/Ordezkoa: Ekaitz Mentxaka Corral. Kideak (Titularrak/Ordezkoa): Mikel Magunazelaia Pinaga. Xabier Orue Moro. Itziar Zarate Urrutia. Gerardo Latorre Pedret. Jose Manuel Pereda Renobales. Idazkaria (Titularra/Ordezkoa): Gerardo Latorre Pedret. ☐Adituen batzordea

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK
1.- Adjudikazio-irizpideak: Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira: **AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU** Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez. Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren beherapen-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

dira honako balio hauek esleituko dituzten formula matematikoen bidez:

Bmax .....50 puntu
(Bmax + BBB) / 2.....48 puntu
BBB .....47 puntu
0,8 x BBB.....46 puntu
0,6 x BBB.....44 puntu
Lizitazio-aurrekontua .....0 puntu

Puntu hauetako balioak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

Non:

- Bi: Eskaintzaren beherapen-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko beherapen-ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona.
- BBB: Batez besteko beherapen-ehunekoa, lizitatzaile bakoitzaren beherapen-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Gainerako eskaintzen puntuazioa aterako da aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta. Hori horrela, Bi beherapen bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta 0 < Bi <= 0,6 x BBB

$$Pi = \frac{Bi}{0{,}6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta 0,6 x BBB < Bi <= 0,8 x BBB

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0{,}6 \times BBB)}{0{,}2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta 0,8 x BBB < Bi <= BBB

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0{,}8 \times BBB)}{0{,}2 \times BBB}$$

Baldin eta BBB < Bi <= (BBB + Bmax) / 2

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta (BBB + Bmax) / 2 < Bi <= Bmax

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBB - Bmax)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Formula hauen bidez lortuta Pi puntuazioaren emaitza guztiak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTOS

- Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia ---------- 30 puntu
  - Egin beharreko lanen irismena ---------- 10 puntu
  - Egin beharreko lanetarako proposatutako programazioa. ---------- 15 puntu
  - Kontrol-sistemak ---------- 5 puntu
- Kontratura bideratutako bitarteko teknikoak ---------- 20 puntu
  - Kontratua exekutatzeko antolamendu-egitura eta lantaldea ---------- 8 puntu
  - Presentzia eta prestasuna, kontratua betetzeko ---------- 4 puntu
  - Lanak egiteko esleitutako bitarteko materialak ---------- 4 puntu
  - Erabili beharreko materialak ---------- 4 puntu

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzaileak duen egoera kontuan izanik:

a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.

b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.

c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzaile bakarra egonik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzaile egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaile egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako beherapena.
- Lau lizitatzaile edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatuko da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzaileari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea: Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

ESKAINTZATIK KANPO UZTEA ERAGITEN DUTEN EZ-BETETZE TEKNIKOAK

Alderdi hauek egiaztatu beharko dira eta, hala egin ezean, lizitatzailea kanpo geratuko da:

- Eskaintzek PTPAn ezarritako betekizun guztiak bete beharko dituzte, eta behar bezala justifikatuta egongo dira.
- Eskainitako ekipoek eskatutako gutxieneko zehaztapen teknikoak bete beharko dituzte, CE marka izango dute eta marka nahiz fabrikatzaile zehatz batekoak izango dira (eskaintzak ezeztatu egingo dira, baldin eta fabrikatzaileak «antzekoa, tankerakoa eta abar» bezalako adierazpen orokorrekin zehazten badituzte). Bereziki, eta ematen duten zerbitzuaren ezaugarri kritikoak direla kausa, ezarri nahi dituzten balbulen antzeko balbula ezarrien zerrenda jaso beharko dute, kontratatzaileak emandako edo ikus-onetsitako funtzionamendu oneko ziurtagiriek abalatuak, eta haietan honako hauek zehaztuko dira: balbulen deskribapena, noiz ezarri zituzten eta zegozkien zenbatekoak.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Enuntziazioa: PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak. Kontratistak kontratua betetzeko ezarritako epearen barruan bete behar du kontratua, bai eta hura gauzatzeko behar diren eta PTPAn zehaztuta dauden mugarri partzialak ere.

- Mugarri bakoitzerako, 250,00 euroko zigorra ipiniko da atzeratutako ordu bakoitzeko.
- Epeak betetzeko aurkeztu diren baina osatu gabe dauden edo eskasak diren lanak baztertu egingo dira, eta aurkeztu gabeko lan gisa zenbatuko dira. Jabetzak erabakiko du, bere irizpidearen arabera.
- Lan eskasengatiko zigorra. 500 euroko zigorra ezarriko da lan eskasa egiteagatik eginiko ohartarazpen bakoitzeko.
- Zigorrak jabetzak obrarako baimendu gabeko energia- edo ur-iturriak erabiltzeagatik. Aldi bakoitzean 500 euroko zigorra ezarriko da.

Zigor guztiak banakatuak izango dira, ez dute elkar baztertuko eta metagarriak izango dira; halaber, beti aplikatuko dira Jabetzaren irizpideari jarraikiz (BBUP). Zigorrak metatzeak kontratua hutsaltzea ekar dezake, SPKLn aurreikusitako baldintzen arabera.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko asegurua dagoelako egiaztagiria.

Administrazio-klausula partikularren agiriaren gehigarria. (VIII. eranskina)

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA
Ez da aplikatzekoa

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA
☒Hasieran aurkezteko betebeharra ☐Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA
Ez da aplikatzekoa

Q.- ERREKURTSO BEREZIA
☐ BAI ☒ EZ

INSTALAZIOAK BISITATZEA
BBUPen webguneko kontratatzailearen profilean, instalazioak bisitatzeko deialdi bat argitaratuko da. Eskaintzak aurkeztu nahi dituzten lizitatzaileak joan ahalko dira, eta haiek PTPAri buruz izan ditzaketen galderei erantzungo zaie.

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN
Jarraian, hona hemen zehaztuta kontratua gauzatu bitartean bete beharreko betekizunak: • BBUPen Prebentzio Sailaren eskakizunak betetzea. • BBUPen Ingurumen-betekizunak betetzea. • Segurtasun eta Osasun Azterlaneko betekizunak betetzea. • Lanak zerbitzuaren beharren araberakoak izango dira. Horregatik, edozein unetan eten edo atzeratu beharko dira, BBUPek hala eskatuz gero (modu arbitrarioan). Hori ez betetzea kontratua eteteko arrazoia izango da. • Zerbitzuak lehentasuna du obrako lanen aurretik, eta, ondorioz, obraren jarduera harekin bateragarriak diren egun eta ordutegietara eramango da. Hori dela eta, honako hauek aurreikusi behar dira: gauez eta asteburuetan lan egitea, lanak egin bitartean eten luzeak egotea, eta kondizio jakin batzuetan lanak aldi baterako eta aurreikusi gabe etetea; hori guztia BBUPerako kostu gehigarririk gabe. Adjudikaziodunak ez du aparteko konpentsazio ekonomikorik izango horregatik, eta, ondorioz, kondizio horiek obra-prezioetan baloratu beharko ditu. Betekizun hori ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekar lezake.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA
Kontratista adjudikaziodunak ordezkari bat atxikiko dio kontratuari; hura kontratistaren plantillan sartuta egongo da eta kontratu-zuzendaritzarekiko solaskidea eta lanen arduradun nagusia izango da.